EUZKOTAR UMIEN ALDEZ

"Txikitxoa, ilunpetan zijoan, bere ibotsaren loŕatza aŕatsaldeko ixiltasunean utzirik."
Rabindranath Tagore.

Ez det uste gaizki aŕtuko dirazutenik nere gauŕko idazki au, orain uŕte batzuek diralarik España'ko Lege-etxian Baŕoeta-Aldamar jaunak esan zituan itzakaz azitzia: "Jaunak, euzkotaŕa naiz eta neure abenda aldeztutera natoŕ". ("Señores, soy vasco y vengo a defender mi raza.")

Eta neure abenda aldeztu nai det abendaren lorerik edeŕ eta mardulenetan, geure abendaren itxaropenik aundijenian eta etoŕkizunik bikañenian··· Euzkotaŕ umetxoetan.

Euzkotaŕ umiak, neure abendako eta neure eledun umetxo abek maite ditutalako bakaŕ-bakaŕik bayetz erantzun nion Euzko-Ikaskuntzari lan au eskatu ziranian, eta euzkotaŕ umetxoak maite ditutelako ta euren aldez zerbait egitiaŕen bakaŕ-bakaŕik ari naiz gauŕ emen, egitada onen gaiztasunari al detan eraz aŕpegi emanaz.

Orain baño lenago ere, bai itzez eta bai idatziz euzkotaŕ umien aldez alegiñak egiña naiz. Ez det ordea ezeŕ iritzi.

Nunbait, gauza abek zuzendu leizkienak edo ez dira euzkotaŕak ¡au tamala! edo ¡au tamalgaŕi aundiagoa! euzkotaŕak izanik ez diote euren abendaren zorionak ardurarik ematen.

Ludiko eŕi guztiak, abenda guztiak, uskuŕtza guztiak, iritzi guztiak, umien, atzetik dabiltza, umia aŕapatu nai dute umia euren uskuŕtzara eta euren iritzietara erakaŕi nai dute.

¡Jakin dakite, ba, gauŕko umetxoen eskuetara erori biaŕ duala ludien biaŕko zoriak!

¡Jakin dakite, ba, gauŕko umetxoen eskuetara erori biaŕ dutela biaŕko gizonen eta eŕien elburuak!

Guk, euzkotaŕok, ostera, geure umetxoen aldez ezeŕ ez dagigu, eta Ume-izti edo Pedagogía ziaŕ begiratu ezkero, gure umiak baño tratu txaŕagoen azpian dagoan umerik ez degu ludi guzian bilatuko.

Baña gauza abek danak geroago azalduko ditut, orain naste gabe ta bere bidetik atera gabe nere lan au eraman biaŕ det eta.

Euzko-Ikaskuntza'k nere lan oneri ipiñitako izena auxe da: Zelan lagundu leikian irakaslariak euzko-eŕi-jakintzaren ikaskizunari. Eta lan onen atalik nagusiena auxe da: (Euzko-Ikaskuntza koak idatzi ziaten bezela eŕderaz idaztera noa).

"Qué ventajas o inconvenientes ofrece el niño vasco, por razón de su lengua, de sus prejuicios, del ambiente en que vive, de la religión, de la vida económica, etc., para su instrucción en las diversas disciplinas que constituyen la enseñanza primaria."

Atal au beaŕ dau bezela azaltzeko, auŕez beste gauza batzuek esan beaŕ ditut eta lenengo-lenengotik umiari erakusteko erabili biaŕ dan elia edo izkuntza.

Bohemiataŕ Komensky jauna (lateraz Juan Amos Comenio) esaten zayon jakintsuen denboretatik asi, ta gauŕ aŕteraño Ume-iztiatzaz idatzi duten jakintsu gustiak, gauza batera jotzen dute, dan-danak, bat kendu gabe ao batetik esaten digute umiari bere ama-ele edo bere ama-izkuntzan erakutsi biaŕ zayola, eta bere ama-izkuntzaren bitaŕtez bakaŕ-bakaŕik, umiaren oldozpena, umiaren izkuntzarekin batera asita aunditzen dalako.

Au, ain egi aundija dalako, Segers jaunak esan du, aurtzaroko ikaskuntza guztia, au da, lenengo ikaskuntza guztia ama-ele edo ama-izkuntzaren ikaskizun bat baño ez dala.

AŔITOKIETA.

ERRIJETATIK

MENDARO

BERMEO'KO ZORITXAŔA. — Bai euzkotaŕak, benetako zoritxaŕa dan igande zortzi bermeotaŕai itxasuan gertatu zayena.

Itxas-zabalian egia da euzkotaŕik asko galtzen dirana. Aitaturiko igandian ere, amaika euzkotaŕ galdu ziran, eta amaikak bermeotaŕak.

Gixagaxo aundiak, euren izardiakin egunoroko ogia irabazten juanak ziran. Eta oŕa oŕ aŕantzale gixagaxo areik izan zuten ondorena, ondoren negaŕgaŕia.

Leŕuok idaztian neri ere jazoera negaŕgaŕi aren gomutiaz, negaŕ malkuak bigietatik itzulten zait, eta ezin det asmatu ere egin zelan idatzi.

Jaungoikua'k Beren onduan eduki ditzatela, igande zortzi Bermeo'tik betiko aldendu ziran aŕantzale trebiak.

Euren sendi atsekabetuei, izan duten atsekabe aldian laguntzen diet. Eta zuk, irakuŕle, bermeotaŕ anai maite arein gogo -aldez otoi Goikua'ri. G. B.

GEXUAK SENDATUTA.— Igazi diran jayetako janariak gaitz egindako gexuak sendatzen ari dira. Osatze oneik pozez beteta imiñi gaituzte, ta gexo izan diran Aŕiola'taŕ Joseba ta Mendikute'taŕ Mikel'i bai bostekuak pozik estutu ere.

ERIOTZA.—Gexo luze baten ondoren eleizakuak aŕtuta gero, Zulaika'taŕ Eŕimige 15 uŕteko neskatila gastia il zan. Goyan bego.

Bere sendi atsekabetuari izan daun atsekabe aldian lagun gayakoz.

KAIKU.

GUERNIKA'TIK

¡Eup! Emen nayatortzube bigaŕen aldiz zeozer idazteko asmuz. Askok uste ixango eban Gernika'tik "Bake-Zale" idazlia uŕten egin zala, edo il egingo zala. Baña ez. Oraintxe natoŕ, ba, sekulako gogorik onenagaz, eta Jaungoikua'ri eskaŕak baŕa osasun edeŕagaz be.

Esan dautzubetan lez, aspaldijon eztot idatzi geure eguneroko izpaŕingi onetan, baña uste dot nik ez-ezeze beste idazle gustijak be kuku egin dabela, "Belu-Mendu" kendu ezkero. "Belu-Mendu" bera da, ba, Gernika'ko izdalerik zaŕena ta onenetarikua, ta zintzoen jaŕaitzen dabena be.

Ia, ba, "Belu-Mendu", oinguan zintzo -zintzo jaŕaŕu biaŕ dautsagu Gernika'ko izpaŕ-txoŕtatxubak bidaltzen eta izpaŕingi onen biŕaŕtez, neure neuŕi bako eskeŕak emoten dautzutaz, zorijonak bidaldu dastazuzalako.

Eta "Belu-Mendu" zuri ¿zer jazoten patzu, ba, aspalditxubon ez idazteko? Ala bosteun lauŕlekoko zigoŕgadiak atzeratuta imiñi zaŕuz?

Ez "Belu", ez atzeratu oŕegaŕik. Badakixu oŕeri zer egiŕen yakon: sorbaldak gora jaso, ta agiñak erakutsi. Eta begi bijak itxi ta espetxera pozez beterik juan. Laŕinaga'ko Euzko-Batzokira juaten ba -zara, ikeŕtuko zara.

Orain neu be pozez beterik aurkitzen naz, Soria'tik bidaldu dauskuben Sevilla'k geure euzkera edeŕa ikasi dauskulako. Lenengotxubetan, eŕderaz egin biaŕ ixaten yakon. Eta orain, euzkeraz idatziŕa be, lasteŕ uleŕtuten dau. Olango jakiŕunak bidalduko ba'leuskubez, ezkintzakez ain txaŕto ibiliko.

ELEIZ-JAYAK.—Uri onetako jostuna dan Bareño'taŕ Gotzon eta onen emastegeya dan Omaetxebaŕia'taŕ Jone'k, euren bigaŕen ezkon-deyak ixan dabez. Ezkongei oneik, abeŕtzale zintzuak dira. Zorijonak.

OSATUTA. — Egun batzuk gexorik egonda orain osatuta aurkitzen da Aranguena'taŕ Pilomene Emakume Abeŕtzale -Batza'ko bazkidia. Bilbao'ko osategijan osatebakuntza egin eutsen, eta orain naikua osatuta dago. Ainbat ariñen gustiz osatuta txaideratuko al-da, ba.

JAYOTZA.—Legaŕa'taŕ Julen eta Tiburtze senaŕ-emastiak, moŕoskotxu bigaz euren sendija geŕu dabe. Ama ta semetxu baŕi bijak, oso ondo auŕkitzen dira.

Zorijonak.

KORTEZUBI'RA.— Datoŕen igandian, iralan 10'gaŕenan, Kortezubi'rako deya dogu. Egun oŕetan Kortezubi'n jai edeŕak egingo dira, ba.

Goxeko sei ta erdijetan Jaunaŕtze orokaŕa. Amaiketan, jaupa ixila. Ordu batetan, oturuntza.

Eta aŕatsaldian, atzeŕki-jaya ta euzko -jolasak ilundu aŕte.

Antzezlarijak forutaŕak ixango dira. Muxika'ko txindoŕ anayak be an ixango dira. Ia, ba, mutilak, ekin eta jaŕai, Euzkadi azkatuteko biderik onena orixe da-ta.

BAKE-ZALE.

MUXIKA

GOROZIKAŔ EUZKO-BATZOKIJA.

Auŕeztik iragaŕiŕa zan lez, ila onen 3'an Emakumiak eralduta Batzoki onetan egin ziran itzaldi abeŕkoyak entzuten etoŕi ziranakin areto eta enparau zurubiraño bete -bete ziran. Auŕkezpena "Txindoŕak" egin ondoren lenengo itz egin ebana Munitxa 'taŕ Inese abadiñotaŕ anderaño azkaŕa baxen Jeltzale zintzua ixan zan; bere itzaldija euzkera garbiz eta emakume zintzuari dagoŕijon lako irakaspidez beterikua ixan zan, asijeran eta amayeran txalo asko entzun be bai; jaŕaŕu olantxe Iñese, beti zintzo elbururaño. Epaltzatza'taŕ Joseba Imanol lagikari gaste azkaŕak be, bilbaotaŕa danaŕen, euzkeraz itzaldi edeŕenetarikua egin euskun; españaŕen ixakerea zelakua dan eta euzkotaŕen egin biaŕak be argi ta garbi erakutsi euskuzan; eguneroko lana, lan abeŕkoya, egiŕen jaŕaŕutia lakorik eztala... ez aiztuteko eta abaŕ. Munitxa'ren eta Epaltza'ren itzaldijak oso txalotuak ixan ziran, onein ondoren oleski abeŕkoi batzuk abestu ondoren "Euzko -Abendaren Ereseŕkija,,'gaz amaya emon yakon jayari, alaŕasunik andijenagaz Abeŕi oyuak egiñik.

Zorijonak jai onen eraltzale eta izlarijei ¡Gora emakume zintzuak!

Gonburu beterik zan
Euzko-Batzokija,
An zan alaŕasuna
An bai gastedija.

Gastedi oŕek baña
Zintzua ixan dedin,
Egijak ikasi ta...
Biaŕ dana egin.

Oŕetakoxe dira
Jeltzale-itzaldijak;
Gogo-biotzetaño
Sarturik egijak.

Goguak azkaturik...
Euzkotaŕ gustijak
Amari azkatzeko
Aŕotz-lokaŕijak.

Euzkadi nundik ilko
Or dabil aŕotza,
Eskuetan aŕturik
Aizkora zoŕotza...

Urtzi'k Euzkadi emon
Euzkun Abeŕitzat,
Beren uŕengo geyen
Maŕe dagiguntzat.

Jakin biaŕ dogu, ba
Kistaŕ-biaŕkuna...
Bete biaŕ dogula
Berak dirauskuna.

Eta euzkotaŕ batek
Beti... egun ta gau
Euzkadi baño España
Maŕiago ba'dau
¿Betetan ete'dau, ba,
Kistaŕ-biaŕkun au...?

Eztau baŕijo nun naŕ
Aŕo... esatiak:
"Neu naz "katolikua"...
Eta ez bestiak"...

"Katolikua" nor dan...
Ñor ustel, nor zindo,
Ziñaldari obeik ez...
Egipenak baño.

JUAN-ETOŔIJAK. — Irala-3'an. Zugaztieta'n poz-pozik agurtu gendun "Agarel" euzkel-idazle azkaŕa; Aŕospide eta Basabe'taŕ Jon muxikaŕ osalari gaste ospetsuba, beren emaste zintzua ta alabatxu kutun poliŕakin guraso ta etxeko maŕiekin batian egun atsegiña igazteko etoŕiŕa, Muxika'n aguŕtu gendun; Aŕospide'taŕ aŕa -seme azkaŕak baxen jeltzale zintzuak, euren emaste onakaz batera, Miren Kuruznetxu alaba ta loba euzko-loratxua erdijan ebela, Ariatza'ko txistulari begikuen euzko-soñuetan, "Astelaŕa-zelai" ospetsuan ebiltzan auŕeskulari ta dantzarijei, ango gastedijaren euzko-eraz jolastutiari begira atsegiñez zirala euren txalo-jotiak argi erakusten eban, ¡euzkotaŕ zintzuak beti ezagun!... Uri andijetako zirku-eta zirkiluetako... "Ser-bila"... "Teotrinko" eta konpañientzat... itxiŕa, Astelaŕa - zelaiko euzko-jolas garbijei begira askoz atsegiñago dakusgu gure eŕitaŕ ospetsu au beren sendiko maŕiakin batian. Miren Kuruznetxu'k be bere aŕatxuren txalo otsak igiŕuta auŕeskularijei eta abaŕ txaluak-txaxo dagitzez, nundik be beukozu baña... etzara aziaren azpiraŋgo oŕija ixango zeu Mirentxu.

Bizkaŕaŕ kiputz-naste
Lili poliŕori,
¿Nok egin zaŕuz baña
Oŕen zoragaŕi?...

E.'TAŔ K.

ONDARRETA

EUZKEL-IXENA.—Aurtemin Ondaŕeta'ko Miren Ezkardun ertxadonan, Saŕalde'taŕ Koldobika ta Ormaetxea'taŕ Bediŕa, gorengo abeŕtzale zintzuen semetxu jayopaŕija, ugutzau eben; Koldobika, euzkel ixen poliŕa imiñi eutsen. Aŕa amabixijak Jaŕalde'taŕ Iñaki eta Ormaetxea'taŕ Andone ixan ziran.

Zorijonak eta jaŕai.

EZKONTZA.—Llona eta Auzokoa'taŕ Augustin eta Basauri eta Agiŕe'taŕ Miren emengo euzko-abeŕtzale maŕe maŕiak; lasteŕ bustartuko diraz; igandian ixan zan lenengo ezkon-deya. Zorijonak, eta uŕte asko zorijontsu bixiko al zarie abeŕijaren onerak.

BATZOKIKO JAYAK.—Il onetan betetzen dira 25 uŕte, Ondaŕeta'ko abeŕtzaliak euren Euzko-Batzokija iriki ebela. Au dala-ta, 25'gn. uŕteuŕena ospatuteko, oso jai abeŕkoi atsegingaŕijak eraldu dabez. Larunbatan asijera emon eutsien jayei.

Gabeko zoŕtzi ta eŕdijetan Euzko-ertilarijen Margolari Erakusketa - zabalgundia ixan zan.

Egun onetan, Atxikalende'taŕ Alberta jaunak, Euzko-ixakereatzaz, egin euskun itzaldija. Beŕi lez, amayeran oso txalotuba ixan zan, eletari, jakintsu begi-begikuau, bere itzaldi jakingaŕijaren ordañez.

Gauŕ, (J. l.) goxeko zoŕtzi ta erdijetan, jaupa ixila ixango da, Miren Eskardun eŕtxadonan, orain aŕte il diran bazkide -gogo-aldez.

Aŕasti'ko 7'tan. "Tamborradia" Solaguren txistulari jatoŕa buru ixanik.

7 ta erdijetan itzaldija batzokiian egingo dau Ugaŕte'taŕ Adiran jaunak eta gaya ixango da Ondaŕeta'ko Abeŕtzaletasunaren edestija. Gaŕ aundija dago abeŕtzale zintzo ta argi oneri entzuteko.

8 ta erdijetan Apari Azkarija, ondoren pelota-tokijan amaikak-aŕte euzko-eŕomerija.

Larunbata'n, goxeko 8 ta erdijetan, Miren Eskardun eŕtxadonan, gastetxu ta euren senidientzako jaunaŕtzeko jaupea ixango da.

Amaŕetan pelota-jokua; pelotarijok, Ondaŕeta'ko lau gaste ixango dira. Pelota jokua amaŕu ondoren, Landaburu'taŕ Peli eletari gastetxu azkaŕak itzegingo dau, eta Ondaŕeta'ko Euzko - Gastetxu-Batza'ren askundia ixango da berak erabiliko daben gaya.

Gabeko 9'tan Gran Cinema deritxon antzokijan antzeŕki jaya.

Lenengo, neska - mutiltxuak abestu-ta jantzan egingo dabe.

Ondoren, gure Agiŕe'taŕ Joseba Andoni ospetsuak, biztuko dauz eŕdilek dagozan euzkotaŕ'en bijotzak, bere itzaldi sutsu ta abeŕkoyakaz; 25 uŕteko gudaldija ixango da bere itzaldijaren gaya. albo eŕijetatik be notin asko ei datoŕ lagun maŕe, eta eletari begiko oneri entsuteko goguaz.

Onen ondoren, batzokiko antzezlarijak antzeztuko dabe. Sota'taŕ Imanol jaunaren antzeŕki poliŕa. "Negaŕez igaro zan atsua" ta Euzko-Abendaren Ereseŕkija abestuko da amayeran.

Igandian, goxeko amaŕetan jaupa abestua Miren Eskardun eŕtxadonan, 11'tan pelota-jokua batzokiko pelotalekuan Elustondo'taŕ Dunixi ta Breude'taŕ Imanol'ek jokatuko dabe Egia'taŕ Alberta'ren auŕka ikusgaŕi partidu poliŕa ixango dala diñue.

Ondoren, auŕeskua.

Aŕatsaldeko 4'an. itzaldi abeŕkoya, pelotalekuan; izlarijak ixango diraz. Zubia 'taŕ Aintzane Durango'ko emakume abeŕtzale batza'ko eletari gorengua, ta Basaldua'taŕ Kepa, entzute aundikua.

Ondoren, euzko-eŕomerija gaberarte.

"URIBITAŔTE'TAŔ IBON,,'I.— Onelako jai ikusgaŕijak, ain uŕian dagozan ezkero; uste oso osuan gaude zeure emaste ta moŕoskuagaz etoŕiko zariela ta, Kurloya'ren abija edonok erakutsiko dautsu, eta etoŕi, mantekileruaren bilduŕ gabe, pozik aŕtuko zaitugu ta. (1)

KURLOYA.

(1) Txaŕto esana ezta, ta eskaŕikasko. Baña Kurloi-abijatxu ori gu oŕeratu baño lenago idorota daukan mutikoren bateri iŕantzen ba'dautsagu, ¡ardura barik egon Kurloya!, nun dagon eztausku erakutsiko -ta. Eta Kurloi-kumetxubakaz ba-dago, baŕiz, ezta ezegaŕik be. ¡Gauŕ egunetako mutikuak euren txori-abijak iñori erakusteko onak egoten dozak, ba!—Ibon.

AZPEITIA

EUZKEL-IZENA.—Egun batzuek dirala Gurutxaga'taŕ Alexandeŕ'en emazteak auŕ bat izan zun. Jayobeŕia Miren euzkel-izenaz ugutzau zuten. Zorionak.

BATZAŔA.—Datoŕen larunbatean ilunabaŕeko zortzi ta erdietan Euzko-Etxea'n batzaŕ bat izango da. Euzko-Etxea'ren Artezkari-Batza'k dagi dei ori. Batzaŕean Euzkadi-Roma ibilkundeaz jardungo da. Abeŕtzale guztiak bertaratu zaitezte.

PELOTA PARTIDUA.—Iragaŕita bezela "Vista-Alegre" deritzayon pelotatokian Olaizola ta Aranburu'k, Txikuri ta Olalde'n auŕka pelotaka jokatu zuten. Lenengoak 15 eta Txikuri ta lagunak 9 zeuzkatela, Olalde'k min aŕtu zualako utzi egin zioten. Bere ordez Olaizola'k Aranburu'ri jokatu zion, Aranburu eskeŕ utzez zala. Olaizola'k irabazi zuan.

ERAKUNTZA ZIGURTASUN EPAIKUNTZARAKO.—Erakuntza Zigurtasun Epaikuntzara'ko (Tribunal de Garantías Constitucionales) izenduna ta ordekoa aututzeko igandez emengo Udaletxean batzaŕ berezi bat egin zan. Amasei ziñegotziak bataŕtu ziran. Amabost Basteŕetxea ta Eizagiŕe'n alde azaldu ziran obeto esateko abeŕtzalean alde eta amaseigaŕena Altzuru karlataŕa, Juaristi ta Paguaga'n alde. Beraz gurenda aundia izan zan gure eŕian abeŕtzaleak lortu zutena.

JOAN-ETOŔIAK. — Galastegi'taŕ Eli "Gudari" idazle ospetsuaren iru aŕeba eta Sondika'ko irakasleme, abeŕtzale zintzoak emen aguŕtu ditugu.

Donostia'n bizi dan Orbegozo'taŕ Bernaba eŕitaŕa ementxe ikusi degu.

KIROL.

OÑATE

DEYA

Jel Aldeŕdiko bazkide danoiri deitzen zaye gauŕ ostiralian (iraila'ren 8'an) gaubeko bederatzitarako batzaŕ nagusirako.

Bertan erabaki beaŕ diran gayak onixek dira:

Eŕki eta uri eralguntzak asteŕtu.

Gipuzkoa B. B. dagoan utzunea betetzeko batzeŕkide bat, eta Euzkadi eta Gipuzkoa'ko Epai zuzentzarako beaŕdiranak aukeratu.

Azkenez, il onen amazazpian Zumaŕaga'n egingo dan batzaŕera'ko oŕdezkaria aukeratu.

Erantzuna

Altuna'taŕ Ander'i.

Zarautz'en.

Aguŕ abeŕkide: Altuna, Aŕtzeluz eta Izeta abixen-itxoŕkunatzaz iŕanduten leustasun garila-17'gaŕeneko idazkijan. Orañaŕte ezin ixan dot erantzun idazkija EUZKADI'n aiztuta euki dabelako: azketsi.

1. ALTUNA: len batzuk "altu" + "ona" edo "una" zala uste leben: niketz "altu-na" edo "no" da, "altu" = alto eŕderaz; "na" edo "no" oŕek txikija dikuŕ. Galdakano, Luno t. a. Altuna = alto pequeño.

2. Aŕtzeluz niketz "aŕtza" + "luze". "Aŕtze" edo "aŕtza" aŕitza da: aŕitza "pedregal" baŕiz: "luz" ori luze edo-da. Beraz Aŕtzeluz = largo pedregal edo pedregal de gran extensión.

3. "Izeta iz" edo "itz"-eta da. "Itz" ori junco da ta Itza abixenan dogu. "Eta" bigaŕen atala askaŕa da euzkeraz (=pluralizante). Itzeta = juncal.

Au neure ustez: beste batzuk beste era batera, be, oldoztu legikie.

Aguŕ eta agindu beti.

AGIŔE'TAŔ ELI'RI.
"Agarel".

BIOTZ-BEGIETAN
Libro de poesías con traducción castellana
Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

Neskutzaren Jayotza

Neskutzaren jayotza ludi gustijaren poz ta alaya ixan zan; laño ta estalpian letaguan gustija egun atatik argiŕuten asi zalako. Ludijarentzako bakaŕik etzan ixan poz ta alaya, bai donokiko deun eta gopoz ta alaya, bai donokiko deun eta gotzonentzako, be. Deunak benetan poztu zitzonentzako, be. Deunak benetan poztu zitzonentzako, be.

Eta nolakuak ixango ete ziran Irukoitz deunaren pozoŕ eta alaŕasuna? Aŕa bere alaba edeŕenagaz, aŕa bere alaba bakaŕaz poztuten dan letz, poztu ta alaŕuko zan; semia baŕiz bere ama ixango zalako ta Goteuna bere emazte zorijontzuba ixango zalako.

Gurasuen poza ezta emen itxakin neuŕtutekua Jokin eta Ane deunen alaya neuŕibakua zan.

Emakumia ixan zan ludija galdu lebana obenaz eta emakumia ixan da Jaungoikuaren eskaŕ onaz ludi au obenetatik gaizkatuko dabena. Ebe sagaŕ edo igali bat txastetiaŕen jausi zan obenpian eta Miren deuna Jaungoikuari men-ixatiaŕen gaizkatu leban ludija.

Jokin eta Ane Miren soŕtu orduko zaŕtxubak ei-ziran. Garai ta aldi atan seingia ixatia lotsagaŕija zan eta geure senaŕ -emaztiok Goiko Jauna'ri otoi ta otoi legozan semia ixateko.

Alako baten gotzona argiŕu ei-yaken eta Miren alabea ixango lebela ageŕtu ei-leutsaen. Eta Miren deuna uste barik seinbagako emakume bategandik jayo zan.

Jayo ta egun batzubetara gurasuak txadonera eruan leben eta Miren ixen alazkaŕija ezaŕi. Txadonetik etxerantza etoŕi ziran gurasuak. Eta Nazaret eŕitxuban asi zan Jaungoikua'ren eskaŕ eta ekandun gustijetan.

Goikuak alako gogorik eleban irazan. Oŕegaŕik bere egikixunik onenan poztu ta alaŕuten zan. Eta geu be alaŕu biaŕ gara geure osasuna bere bidez etoŕi yakulako.

AGAREL.

Patxarosua

Gibel-zabal ozkiŕija euki edo, gibel-estu berokoŕa euki, eztago alde txikija gixonetan; auŕekuen taldekua zan ene eŕitaŕ bat Aranbaŕi'taŕ Iñaki Anton eritxona; Karla V'gaŕenaren aldiko gudaketan gudari ibilija zan, eta, aldi atako izpaŕik edestuten asi ezkiño, aiztu oizan, bere jun -etoŕijetako egin biaŕik gaŕantzirik aundijenetakuak be.

Negu aldiko goiz baten leyagaz zuri-zuri egozan eŕberako solo eta zelayak eta, Iñaki Anton'en alaba nausija Domeka Eŕamuna adiña zerbait ilundu jakolako, solorik solo arin etoŕen eta altzaleiko sagasti baŕenera jatsi zanian, mune ganetik jauzki eban eŕekara, ta, bat batian ondoratu zan; aitak ondorik jaŕaiŕu eutsan eta, eldu zanian alabea uretaratu zan tokira, jaŕi muneganian da, patxara edeŕagaz abaŕkak erazten asi zan; eskijeŕ nago noŕbait euki baleu kaŕlataŕen gudaldijaz itz egingo eutsena; Iŕoten eguan alabeagaz aiztuta jaŕaiŕuko eutsan guda-edestijari.

Eskeŕak Muniosolo'n moŕoitzan eguan Bilbao'taŕ Jon txikijari (G. B.) beste aldeko munetik janski ugaŕasijuak legetxe, ta, paŕa-aŕi baño bizkoŕago juanda, bixirik atera eban, Iñaki Antonek abaŕkak erantzi orduko: Orexa'taŕ Perdiñanda osagile jaunak alegiñak alegin, zaragi betiaren antzian eguan neskatile gastia nekez baten baña oŕaitik konoŕtera ekaŕi ta osatu eban.

Ondo irabazija ta merezija eban-aŕen bezuzik etxakon eldu gontxiki gixagaxubari; Uŕtzi'k oŕdaindu dayola betiraunian.

Iñaki Antonek Andonegi buruban edo laka azpijan garo sala ebagita eukonda goiz baten bialdu ebazan bere alabak gero batzera, atzeratxuago urtenda juango zala beyekin; oŕ bederatzijak inguruban urtenda, pipia abuen ebala sosiguz joyanda, Patxiko kamiñotxuk solo guenetik itz egin eutson, eta egualdijan gora berakaz eta, gineagaz ekitaldi bat egin ondoren jo eben kaŕlataŕen gudara ta aiztu yakon nora joyan eta zetara joyan; jakin ixan baleu esateban baltzen eta kaŕlataŕen gudal-burubak alkaŕ aŕuta erabilen maltzuŕkerizko atzipena, ez geuntsezan emongo geure izkilubak baña, gu sinismen osokuak ixanda, atzipetu gindubezan. Alako baten gogait egin eben beyak asi ziran auŕera ta bera be bai, baña oraindik edestijari jaŕai guriagaz. Auŕeragotxuago zanian urten eutson bidera maŕukok, jaŕabagaz bere edestijari; onetan egozala txadontoreko jualia au zan danga-danga joten, eta, zera esaban; ¿amaŕak aldie? Baña lasteŕ ikusi eban amabijek zirala; kendu txapela, ta, Ama Neskutza aguŕtu ondoren, jeuŕt eragin beyei, ta utsik etxera biguŕtu zan, berandu zala auŕera juateko-ta.

GARATE'TAŔ J. M.

Fatal desenlace

Ha fallecido lord Grey

Londres. — A las seis y cinco de esta mañana ha fallecido en su propiedad de Fallondon Northumberlald el ilustre político lord Grey, que llevaba 70 horas en período agónico.

Ingresó en el Parlamento a los 23 años, y nunca aspiró al puesto de primer ministro, interviniendo sólo en las discusiones parlamentarias de carácter general.

Prefería a la política, la caza y las excursiones por los bosques.

A las treinta años fué nombrado secretario de Negocios Extranjeros, y desempeñando este cargo en 1914 hizo toda clase de esfuerzos para evitar el conflicto europeo.

El mes de agosto de dicho año pronunció en el Parlamento su célebre discurso decisivo para la entrada de Inglaterra en el conflicto. En 1919 se retiró a sus propiedades, dedicándose a escribir sus memorias. Recientemente había condenado el hitlerismo.

EUZKO
JEL-ASTEROKO IZPAŔINGIJA
Larunbatetan agiri ixaten da
Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.

Joyería-Platería-Relojería
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
Legazpi, 10 — DONOSTIA
ARIETA BITXIZALE
Bitxitegia-Zillartegia-Gabeukaztegia
BITX'AK EGIN ETA BERRITZEN DITU
— Urrutizkiña, 13.777 —

"BIYONA" LUGINTZA-ETXALDIA (Irún, Ilno, 313)
2.000 gallinas de "Leghorn", con sus nidos contadores de huevos. Venta de huevos para incubadoras, polluelos y pollas de tres meses.

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARRISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas). — GIPUZKOA

Transportes de muebles
y toda clase de mercancías dentro y fuera de Bilbao, a precios económicos
ISIDRO DE OLARAN
Aguirre, 30, 2.° T. 12.821. Bilbao

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.°. DONOSTIA

MARTIKORENA
Sagiyetako gaixoen sendagillea
Garibay 13 bis. 2.° - DONOSTIA

J. M. Sansinenea
Enfermedades de infancia
Garibay, 5, 2.° Teléfono, 12.463.
DONOSTIA.

Eguilegor y Beorlegui
Cafés tostados
Garantizados puros
Urbieta, 49. Teléfono, 15.19
DONOSTIA

Dr. L. ZURIARRAIN
Corazón y pulmones. Rayos X.
Consulta de 11 a 1 y de 3 a 5.
Oquendo, 28, 4.°. T. 12.662. Donostia

J. I. Labayen
ESPECIALISTA
Enfermedades de pulmón
Alameda, 7, primero. — DONOSTIA

DR. VIDARTE
Sistemas nerviosos y mentales.
De 10 a 12 y de 2 a 5.
ELCANO, 10, segundo. -- Donostia.

DENTISTA
ALVAREZ MUJICA
Legazpi, 9, 1.° - Teléfono, 13.355
DONOSTIA

Dr. ZUBIA
Especialista en enfermedades de OIDOS, NARIZ y GARGANTA.
Legazpi, 1, 3.° Teléfono, 11.908. Donostia

ESTACION DE ENGRASE A PRESION - VULCANIZADOS
Garage Aracama
A. Miramón, 6 - Tl. 13.988 - DONOSTIA

FASHION
Gizonesko - jantzi, korbata eta abar. Joskindegia.
Miracruz, 1. Urrutizkiña 13.682'garren.
DONOSTIA

IRULEA
Lencería.—Géneros de punto.—Confección. Mayor, 7. Teléf. 16.029. DONOSTIA

R. REZABAL
DENTISTA
Fuenterrabía, 4-1. - Donostia

Bazar Médico Ortopédico
FAJAS Y BRAGUEROS
Hernani, 1. Teléfono, 15.730
Instrumental médico Donostia

ALMACENES LASAGABASTER
TEJIDOS Y NOVEDADES
DONOSTIA

PANIFICADORA LA ESTRELLA
Embeltrán, 2 y 4. — DONOSTIA
Ocho sucursales. - Servicio a domicilio.
Llámenos al teléfono 10.023

Droguería y Perfumería
MANUEL ALVAREZ MUGICA
Pinturas especiales de carrocería
Miracruz, 18 y 20. Tl., 10.618
Donostia

BAZAR KINTIN
Juguetes, vajillas y artículos para regalos.
Urbieta, 29. — DONOSTIA

V. GARAIZABAL
Enfermedades del aparato digestivo y nutrición. Rayos X
Certificados para la cura de aguas
ZESTONA GIPUZKOA

F. LOIDI ZULAICA
ESPECIALISTA EN ENFERMEDADES DE LA PIEL Y SECRETAS
ALAMEDA, 6, 1.°. - Tl. 12.929. - Donostia

La Villa de Bilbao
Muebles, camas aluminio, hierro latón. Coches niños. Relojes pared
Aldamar, 2. T. 10.755. DONOSTIA

Confecciones "Onena"
Tejidos y confecciones de ropa blanca.
PASAJES (Guipúzcoa)

Arin y Embil
Muebles. — Orio. Teléfono, 7
Casa muy recomendable

BAR RESTAURANT
«INTZA»
Servicio a la carta
Esterlines, 12. DONOSTIA T. 15714

Taller ortopédico
A. GOETZE
Clínica San Ignacio. - DONOSTIA